

ALTZa! porru!



Euskal Herriko
Trikitixa Elkarteak
L.G.: SS-418/01

EUSKAL HERRIKO TRIKITIXA ELKARTEAREN BOLETINA

2002ko iraila-urria / 7 zenbakia

Euskal Herriko Elkartearen
Batzar Nagusia

Soinu Txikirako Kantak IV

Laja eta Mikel bikotearen
disco berria

Nazioarteko Trikitixa Jaialdia 2002

Trikitixa Ezagutzuz Erakusketa

Euskal Herriko Trikitixa Elkartearen Batzar Nagusia

Urriaren 8-an izango da Zarautzen arratsaldeko 8:00etan

Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak 2002. urteari dagokion Batzar Nagusia deitu du Urriaren 8-rako. Bertan Elkarteko bazkide guztiek parte har dezakete, beraz, Altzaporru! etxean jasotzen duzuen guztiak gonbidatuta zaudete.

Elkarteak azken urteetan jasan dituen aldaketek zuzendaritza berritu behar izatera bultzatzen gaituzte. Lehendakaria, lehendakariordea, idazkaria, diruzaina eta bokalak izendatuko dira bai eta Elkartearen egiturari buruzko zehaztapen zenbait ere. Hemendik aurrera bazkideei eskainiko zaizkien zerbitzu eta aukeren berri emango da. Honek bazkideen kuota eta txartela berritu beharra ekarriko du.

Elkarteak Euskal Herriko trikitixa munduaren bilgune izan nahi du eta horrek probintzia desberdinetan dauden Trikitixa Elkartearen konfederazio izatera eraman gaitu.

Elkartearen gaur eguneko egoera, aurten egindakoak, egitasmoak eta datorren urterako prebisioak ere aipatuko dira, ikastaroak, publikazio berriak, jaialdiak, 2003.eko Euskal Herriko Txapelketa Nagusia, eta beste...

EHTE-ren egoitzan izango da Batzar Nagusi hau, Zarautzko Bista Alegre auzoan, Allemendi kaleko 1. zenbakian (Auzo Elkartearen gainean). Bereziki garrantzitsua iruditzen zaigu zuen parte hartzea. Edozein zalantza baduzue deitu elkartera edo email bat bidali.

SOINU TXIKIRAKO KANTAK IV



Adolfo Jainaga eta Iñaki Zabaletak eginiko laugarren alea da hau.

Hiru atal desberdinetan sailka daitezke lan honetako partiturak: Okzitaniako piezak, euskal doinuak eta baltsak, runbak, tangoak, eta beste.

Okzitaniako piezei eman diete txoko nabarmena. Hori zergatik? *“Estatistikek diotenez sekula baino soinujole gehiago dago gaur egun Euskal Herriko plazetan, baina alderantziz, sekula baino dantzari edo dantzazale gutxiago ere bai. Asko izan daitezke motiboak: Ohitura aldaketak, lotsa, dantzen zailtasuna; gu ez gara orain zergatiaren bila hasiko eta lotsa edo zailtasunari aurre egiteko, hona hemen plazaz plaza dabiltzan musikari eta dantzari batzuk proposatzen dituzten Okzitaniako dantzen partiturak. Dantza hauek oso errazak dira ikasteko, hiru edo lau pauso ezberdinetakoak; momentuan ikasteko modukoak: Bourrée-a, scottish-a, courinta,...* Soinuarekin jotzeko ere zailtasun gutxiko piezak”.

Bigarren atalean ezagunagoak diren atzerriko doinuak bildu dituzte. Baltsak, runbak, tangoak... Pieza errazak eta tartean konplikazio maila altuagoa duen bat edo beste ere bai.

Hirugarren atalean euskal doinuak doaz. Trikitixa, porrusalda, biribilketa... Txistulari eta soinujoleentzat oso ezagunak diren doinuak. Atal honen ostean doinu batzuen hitzak idatzi dituzte.

NAZIOARTEKO TRIKITIXA JAILDIA 2002

-Donostiako Kursaal aretoan Azaroaren 23an.

-Euskal Herriko, Italiako, Kolonbiako eta Catalunyako soinu joleak izango dira.

-Jaialdia ETBk grabatuko du Abenduan emango duelarik.

Datorren Azaroaren 23rako trikitixaren festa handi bat antolatu dugu, Nazioarteko Trikitixa Jaialdia. Donostiako Kursaal aretoan izango da arratsaldeko zortzietatik aurrera. Bertan parte hartuko dutenak honako hauek dira:

Euskal Herritik oraingoz konfirmaturik daudenak hauek dira:

-Laja eta Mikel

-Kataolatza eta Juliana

-Gelatxo

-Tapia eta Leturia

-Iker Goenaga eta Natxo de Felipe

Italiatik:

-Andrea Russo eta Davide Compte

Kolonbiatik:

-Antonio Rivas

Catalunyatik:

-Caty Plana, Carles Belda eta Daniel Violant.

Euskal Herrikoen berri baduzue, oraindik ere bikoteren bat gehiago izango bada ere. Italiarrek pizzika eta tarantela dantzen inguruko saioa egingo dute. Pandero jotzailearen estiloa oso deigarria da eta soinu jotzailearen kantaera ere azpimarratzekoa. Kolonbiatik datorren Antonio Rivasek vallenato estiloaren berri emango digu, estilo honen ezaugarririk nabarmenena erritmoa da. Catalunyatik datozen ordezkariak esperimendazioa lantzen dute soinu diatonikoarekin. Dantzaren inguruan mugitzen da hauen errepertorioa hala ere.

Sarrerak 15 euroko kostua izango du Elkarteko bazkideentzat 10 euro izango direlarik. EHTE-ra deituta erreserba egin dezakezue edo Kurasaaleko takilan.

LAJA ETA MIKEL BIKOTEAREN DISKO BERRIA

Eguzki begi izenburua izango du Laja eta Mikel bikotearen lanik berrienak. Fandango, arin-arin, kalejira, trikitixa, porrusalda eta pare bat kantu izango dira entzungai disko berri honetan.

Diskoa, 2002ko maiatzean Elkar estudioan Jean Phocasek grabatua eta nahastua izan da.

Nikolas Zendoia, Jon Azpillaga eta Xabier Euzkitze izan dira pieza zenbaitzuen hitzak egin dituztenak, gehienak bistan da, bertsoak direlarik. Bi kantu ezagunen bertsoak ere ondu dituzte disko berri honetarako: Iztuetaren Kontxesiri eta Eltzegor taldearen Zazpiak oihal batetik.

Hona hemen Laja eta Mikelen diskoan parte hartu dutenen zerrenda:

Iñaki Garmendia "Laja": soinu txikia

Mikel Alustiza: panderoa eta ahotsa

Gonzalo Tejada: kontrabaxua

Fernando Irazoki: perkusioa

Angel Unzu: gitarrak, perkusioa

Aipagarria bestalde, produkzioa artistikoa Juan Carlos Perezen esku izan dela. Itoiz taldearekin ezagun egin zen kantugile honen galbahetik pasatu dira beraz lan honetarako aukeraturiko pieza eta kantuak.



“Trikitixa Ezagutuz” erakusketa

Jarraitzen du herriz herri Trikitixa Ezagutuz erakusketak. Erakusketa 14 panelek osatzen dute eta bertan trikitixaren historia, lehengo ohiturak, aintzinako trikitilariak, oraingo trikitixa eta beste aipatzen dira. Argazki ugariz hornituriko erakusketa da eta musika tresnak ere ikusgai ditu. Hala nola, trikitixa, pandero, txirula, dultzaina, alboka, txistu eta beste. Gerra aurreko diskoak entzuteko moduko gramofono bat ere badago erakusketa honetan.

Aurten Antzuolan, Zizurkilen, Amoron eta Ordizian izan da. Urte amaiera arte beste lau lekutan ikusi al izango duzue:

-Ezpeletan: Irailaren 20tik Urriaren 6ra.

-Gernikan: Urriaren 7tik 20ra.

-Olabarrian: Urriaren 21etik Azaroaren 3ra.

-Ibarran: Azaroaren 4tik 18ra.

Zuen inguruan tokatzen bada bueltatxo bat egizue eta hala ez bada eta zuen herrira eraman nahi baduzue jarri harremanetan elkartearekin.



HAUSPO ZAHARRAK



Ezkerretik hasita lehendabizikoa Migel Sagastume "Mago de Urki" duzue. Kuban ibili zen Migel Sagastume soinu handi jolea musikari profesional moduan. Hara zer zioen bertako egunkari batek Migel Kubara iritsi berrian:

-Procedente de Europa acaba de llegar a Cuba este prestigioso músico español, al cual veremos pronto en nuestros principales teatros, estaciones de radio y clubes.

gurutze gramaz gurutze gramaz

		Deitura		Bogatzearen ekintza		Bibliako pertsonaia		Amaiera	
		Eragozpenak		Eskaini eta ez eman		Haurren heroi		Arkume	
		Mauka							
		Bokala							
Legeak	Guraso arrak						Zubiaren erdian		
Garoa	Ardiaren ar						Kontso- nantea		
		Titanioa			Kiskali				
		Zintzoa			Dimaren erdian				
Aurpegiko irekidura				999			Iridioa		
Izena				Barazki mota			Zein tokitan		
								Bokala	
								Interjekzioa	
Garbi					Zein				Uranioa
Eguzki					Röntgen				
		Fakto				Nanka			



soluzioak

A	K	A	B	E	R	A	U
L	O	X	U	R	I	R	A
B	P	O	K	E	M	N	N
B	O	G	A	I	M	N	R
A	T	A	T	A	M	Z	A
O	P	A	I	A	R	T	E
A	R	A	H	A	J	A	E
I	R	A	H	A	J	A	E